



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

BODYBOARD ZIRKUITUA 2021

- EZAUGARRIAK

- **Egutegia:**

- Zumaia. Itzurun Urriak 9/10 - 16/17 - 23/24
- Ereaga. Azaroak 13/14 - 20/21 - 27/28
- Mundaka. Abenduak 4/5 - 11/12 - 18/19

-Itsasoaren baldintzengatik hainbat txapelketarako baldintza egokiak badaude, EHSFko talde teknikoak erabakiko du non egin txapelketa.

-Itsasoko baldintzak soilik egun baterako egokiak badira , 32 partehartzailerera murriztu ahal izango da txapelketa. Kontuan izanik lehendabizi seedinga eta ondoren, berdinketa kasuetarako izen emate ordena.

- **Zirkuituko ezaugarriak:**

- Zirkuito bakarra bi kategoriakin:

OPEN MUTILAK

-Txapelketa burutzeko gutxienez 6 partehartzailek eman beharko dute izena.

OPEN EMAKUMEZKOAK

-Txapelketa burutzeko gutxienez 6 partehartzailek eman beharko dute izena. Parte hartzaile kopurua ez balitz gutxienera iritsiko, OPEN MUTILAK kategorian izen emateko aukera izango dute, horrela OPEN MIXTO kategoria bat bilakatuz.

- **Txapelketako sistema:**

- Kanporatze sistema.
- Egun bat edo biko txapelketak, larunbat/igande.

- **Zirkuituko sailkapen sistema:**

3 froga izango dira (Itzurun, Ereaga, Mundaka):

- Hiru emaitzak hartuko dira kontutan.
- Azken frogako emaitzak balio bikoitza izango du.
- Itzurungo froga **EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA** izango da zirkuituko froga izateaz gain. Frogako lehen Euskal sailkatua Euskadiko txapeldun izango delarik.

Zirkuituko lehendabiziko froga irekia izango da (Itzurun).



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

Zirkuituko bigarren froga (Ereaga) mugatua izango da. Horretarako 2019ko sailkapenari, 2021ko zirkuituko Itzurungo sailkapena gehituko zaio.

Ereagan parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da 2021eko zirkuituko froga bat egitea.

Ereagako frogako sailkapena ondorengoa izango da:

· MUTILAK: 2021eko TOP 16a.

· EMAKUMEZKOAK: 2021eko TOP 8a.

***TOP-a betetzen ez bada antolakuntzak erabakiko du nola bete koadroak.

Mundakako froga mugatua izango da, zirkuituko lehen bi frogetako sailkapenak baldintzatua (2021eko zirkuitua).

Mundakako frogan izena emateko gutxienez 2021eko zirkuitu bereko froga batean parte hartzea beharrezkoa izango da.

Mundakako azken frogako sailkapena ondorengoa izango da:

· MUTILAK: 2021eko TOP 8a.

· EMAKUMEZKOAK: 2021eko TOP 4a.

***TOP-a betetzen ez bada antolakuntzak erabakiko du nola bete koadroak.

Itxarote zerrenda (Ereaga eta Mundaka): Parte hartzaileen zerrenda egingo da seedingaren arabera, txanden koadroak osatuko dira aurre ikusitako TOPEkin eta EHSFko kanaletan publikatuko dira.

Txandetan sartu ez diren baino izen ematea gauzatu duten parte hartzaileak automatikoki itxarote zerrendan egotera pasatuko dira aurrez definitutako seedingaren ordenaren arabera.

Txapelketako lehenengo errondan itxarote zerrendako parte hartzaileak hutsuneak betetzen joango dira orden berdina jarraituz.

Behin txapelketa bukatuta, itxarote zerrendan zeuden baino parte hartzerik izan ez duten surflariei izen ematearen ordainketa bueltatuko zaie.

***Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.

○ **Diru sariak:**

- Zirkuitu osoa: 9.000,00 €

Premio Euskadi del deporte 2002 a la entidad deportiva
Premio Cultural Award ASP 2.003



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

- Froga bakoitza: 3.000,00 €

***Sariak berberak izango dira bi kategorietan.

	MIXTO open		EMAKUMEZKOAK open
1º	500,00 €	1º	500,00 €
2º	350,00 €	2º	350,00 €
3º	200,00 €	3º	200,00 €
4º	150,00 €	4º	150,00 €
5º	90€ x2 180,00 €	5º	90€ x2 180,00 €
7	60€ x 2 120,00€	7º	60€ x 2 120,00€
	1.500,00€		1.500,00 €

OHARRA:

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru dekretuei jarraikiz diru sari guztiek %15ko atxikipena izango dute.

○ **Seeding 2021:**

- Lehendabiziko froga Itzurun: 2019ko sailkapenaren arabera.
- Bigarren froga (Ereaga): 2019ko zirkuitua + 2021eko zirkuituko sailkapena gehituko zaio (Itzurungo froga).
- Hirugarren froga (Mundaka): 2021eko zirkuituko sailkapenaren arabera.

Txandak froga bakoitzeko seedingaren arabera antolatuko dira.

○ **Izen emateak:**

- **Epea:**

Froga aurreko **asteazkenean (24:00h PM) itxiko dira.**

Parte hartzaile guztiek gauzatu beharko dute izen ematea aurre ikusitako epe eta bidearen arabera. Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.

Arazo informatiko edo eta akatsen bat izango balitz izen ematean parte hartzaileak idatziz (email bitartez) jakinarazi beharko dio federazioari honekin batera arazoaren frogak atxikituz (akatsaren pantaila-argazkia edo ordaintze sistemaren

Premio Euskadi del deporte 2002 a la entidad deportiva
Premio Cultural Award ASP 2.003



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

agiria) izen emate epearen biharamunaren 14:00h baino lehen (froga aurreko ostegunean).

Erreklamazioa aurre ikusitako epe eta moduan egingo ez balitz parte hartzaileak frogan izen emateko aukera galduko luke.

Zenbatekoa:
35 €

Baldintzak- Izen emateko modua:

HURRENGO DATETAN ZEHAZTUKO DA

- EHSFkoak ez diren lizentziak: Federatu lizentzia eguneratua aurkeztu beharko da eskaneatuta eta email bitartez.

○ **Zigorrak:**

Froga ospatzen den bitartean txandaz kanpoko beste parte hartzaile batek (gainontzeko kategoria batean parte hartuta ere) lehiaketa oztopatuko balu eta identifikatu eta ohartarazpenari kasu egingo ez balio dagokion zirkuituko ondorengo bi frogetan parte hartzea debekatuko litzaioke.